Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org

| | |
|---|---|
| UAOaren 149.2. artikuluari jarraiki, akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira. | De acuerdo con el art. 149.2 del ROP, la presente Acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión. |
| Honako hau da artxiboaren identifikazio kodea: | El fichero resultante se identifica con el siguiente código: |

**nUuchAu1iQlgBO2panD18msUQrlzoWvvPW0RpMdVLj0=**

| | |
|---|---|
| Grabazioa URL honetan aurki daiteke: | La grabación está disponible en la URL: |

https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401

# HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN ETA ETXEBIZITZAREN BATZORDEA
**2024ko URRIAREN 14an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

# COMISIÓN DE MODELO DE CIUDAD, URBANISMO Y VIVIENDA
**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 14 DE OCTUBRE DE 2024**

## PARTAIDEAK / ASISTENTES:

**BATZORDEBURUORDETZA /PRESIDENCIA**

D. César Fernández de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV) abre la sesión. Tras la votación del asunto n.º 1, D. Lucho Royero Jiménez jauna (EAJ-PNV) pasa a presidir la sesión.

**BATZORDEKIDEAK / VOCALES:**

Dª. Aitziber Salazar Arresti andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Xabier Ruiz de Larramendi Arana jauna (EH BILDU GASTEIZ)
Dª. Maider Uriarte Becerra andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Ekaitz Díaz de Garayo Sáez de Cerain jauna (EH BILDU GASTEIZ)
Dª. Ana Rosa López de Uralde Gómez andrea (PSE-EE)
D. Borja Rodríguez Ramajo jauna (PSE-EE)
Dª. Marta Alaña Alonso andrea (PP)
D. Iñaki Gurtubai Artetxe jauna (EAJ-PNV)
D. Lucho Royero Jiménez jauna (EAJ-PNV)
D. Óscar Fernández Martín jauna (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**

Dª. Ainara Mtz de Sabarte Agraz andrea

**BERTARATUTAKO BESTE ZENBAIT/ OTROS ASISTENTES:**

En el turno popular: El Sr. G.P.L y la Sra. A.S.R en nombre de la asociación vecinal Zazpigarren Alaba-Babestu Araba./Herritar txandan: G.P.L jauna eta A.S.R andrea Zazpigarren Alaba-Babestu Araba auzo elkartearen izenean.

| | |
|---|---|
| Udaletxean, 2024ko urriaren 14an, goizeko 9:03an. | En la Casa Consistorial, a las 09:03 horas del día 14 de octubre de 2024. |

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

| | |
|---|---|
| Gertakari hauen berri ematen da: | Se hacen constar las siguientes incidencias: |
| 9:04an aldaketa buruordetzan: Royero jaunak (EAJ-PNV) Fernández de Landa jn. (EAJ-PNV) ordezkatu du. | 9:04 cambio en la presidencia: la *Sra*. Villalba (EH BILDU GASTEIZ) sustituye a la Sra. Vitero (EH BILDU GASTEIZ). |
| 9:06an herritar txandako parte-hartzaileak sartu dira. | 9:06 los participantes del turno popular entran. |
| 9:12an García (PP) jn. irten da. | 9:12 el Sr. García (PP) entra. |
| 9:18an García (PP) jn. irten da eta 9:20an berriro itzuli da. | 9:18 el Sr. García (PP) sale y se reincorpora a las 9:20 horas. |
| 9:28an Ruiz and. (ELKARREKIN) sartu da. | 9:28 la Sra. Ruiz (ELKARREKIN) entra. |
| 9:28an Borja jn.(PSE-EE) sartu da. | 9:28 el Sr. Borja (PSE-EE) entra. |
| 9:46an herritar txandako parte-hartzaileak irten dira. | 9:46 los participantes del turno popular salen. |
| 9:53an Díaz de Garayo jn. (EH BILDU GASTEIZ), Sra. Salazar and. (EH BILDU GASTEIZ), Uriarte and. (EH BILDU GASTEIZ), López de Uralde and. (EH BILDU GASTEIZ), Borja jn. (PSE-EE), Gurtubai jn. (EAJ-PNV), Ruiz (ELKARREKIN) and. irten dira. | 9:53 el Sr. Díaz de Garayo (EH BILDU GASTEIZ), la Sra. Salazar (EH BILDU GASTEIZ), la Sra. Uriarte (EH BILDU GASTEIZ), la Sra. López de Uralde (EH BILDU GASTEIZ), el Sr. Borja (PSE-EE), el Sr. Gurtubai (EAJ-PNV), la Sra. Ruiz (ELKARREKIN) salen. |
| 9:55ean García (PP) jn. irten da eta 10:01ean berriro itzuli da. | 9:55 el Sr. García (PP) sale y se reincorpora a las 10:01 horas. |
| 9:59an Díaz de Garayo jn. (EH BILDU GASTEIZ) sartu da. | 9:59 el Sr. Díaz de Garayo (EH BILDU GASTEIZ) entra. |
| 10:02an Alaña (PP) jn. irten da eta 10:05ean berriro itzuli da. | 10:02 la Sra. Alaña (PP) sale y se reincorpora a las 10:05 horas. |
| 10:06an Fernández de Landa jn. (EAJ-PNV) irten da eta 10:10ean berriro itzuli da. | 10:06 el Sr. Fernández de Landa (EAJ-PNV) sale y se reincorpora a las 10:10 horas. |
| 10:30ean Fernández jn. (ELKARREKIN) irten da eta 10:45 berriro itzuli da. | 10:30 el Sr. Fernández (ELKARREKIN) sale y se reincorpora a las 10:45 horas. |
| - Gai-zerrendako 4. eta 5. gaiak batera eztabaidu dira. | - Los asuntos del orden del día n.º 4 y 5 se debaten conjuntamente. |
| - Gai-zerrendako 7. eta 9. gaiak batera jorratu dira. | - Los asuntos del orden del día n.º 7 y 9 se tratan conjuntamente. |

**1. GAIA: BATZORDEBURUA ETA BATZORDEBURUORDEA AUKERATZEA.**

**Nº 1 ASUNTO: ELECCIÓN DE PRESIDENCIA Y VICEPRESIDENCIA DE LA COMISIÓN.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=13

**ERABAKI-PROPOSAMENA**

Ikusirik, Beatriz Artolazabal Albenizek, EAJ/PNV taldeko bozeramaileak, Udalbatzako Idazkaritza Orokorrean 2024ko irailaren 25ean aurkeztutako idazkia, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren eta Etxebizitzaren Batzordeko Batzordeburutza eta Batzordeburuordetza aldatzeko eskatzen duena. Ikusirik Gasteizko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 126. artikulua. Erabaki hau har dezala proposatzen zaio Hiri Ereduaren, Hirigintzaren eta Etxebizitzaren Batzordeari:

**ERABAKIA**

1.- Lucho Royero Jiménez jauna (EAJ/PNV) aukeratzea Hiri Ereduaren, Hirigintzaren eta Etxebizitzaren Batzordea Batzordeko Batzordeburua izateko, eta Miren Fernández de Landa andrea (EAJ/PNV) batzordeburuordea izateko.

2.- Alkatetzari bidaliko zaio aipatutako zinegotziaren aldeko izendapen proposamena, bilkura hau egiten den egunetik aurrerako ondorioekin.

**BOZKETA**

Honako boto hauekin **ONARTU DA:**

**ALDE (7):**

Rodríguez Ramajo jn. (PSE-EE)
López de Uralde Gómez and.(PSE-EE)
Sr. Gurtubai /EAJ-PNV)
Royero Jiménez jn. (EAJ-PNV)
Fernández de Landa Manzanedo jn. (EAJ-PNV)
Alaña Alonso and. (PP)
Fernández Martín jn. (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**PROPUESTA DE ACUERDO**

Visto el escrito suscrito por Doña Beatriz Artolazabal Albeniz, portavoz del grupo municipal EAJ/PNV, presentado en la Secretaría General del Pleno el 25 de septiembre de 2024, por el que se solicita modificar la Presidencia y Vicepresidencia que su grupo ostenta en la Comisión de Modelo de Ciudad, Urbanismo y Vivienda. Visto el artículo 126 del Reglamento Orgánico del Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Se propone a la Comisión de Modelo de Ciudad, Urbanismo y Vivienda, la adopción del siguiente:

**ACUERDO**

1.- Elegir a D. Lucho Royero Jiménez (EAJ/PNV) para ocupar el cargo de Presidente de la Comisión de Modelo de Ciudad, Urbanismo y Vivienda, y a Dª Miren Fernández de Landa (EAJ/PNV) como Vicepresidenta de la misma.

2.- Elevar a la Alcaldía la propuesta de nombramiento a dichos concejales, con efectos al día de la fecha de celebración de esta sesión.

**VOTACIÓN**

**APROBADA** con los siguientes votos:

**A FAVOR (7):**

Sr. Rodríguez Ramajo (PSE-EE)
Sra. López de Uralde Gómez (PSE-EE)

Sr. Gurtubai /EAJ-PNV)
Sr. Royero Jiménez (EAJ-PNV)
Sr. Fernández de Landa Manzanedo (EAJ-PNV)
Sra. Alaña Alonso (PP)
Sr. Fernández Martín (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**KONTRA (4):**

Uriarte Becerra and. (EH BILDU GASTEIZ)
Díaz de Garayo Sáez de Cerain jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Salazar Arresti and. (EH BILDU GASTEIZ)
Ruiz de Larramendi Arana jn. (EH BILDU GASTEIZ)

**ABSTENTZIOAK (0)**

**EN CONTRA (4):**

Sra. Uriarte Becerra (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Díaz de Garayo Sáez de Cerain (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Salazar Arresti (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ruiz de Larramendi Arana (EH BILDU GASTEIZ)

**ABSTENCIONES (0)**

**2.**
**GAIA: 2024KO IRAILAREN 30EAN EGINDAKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA.**

**Nº 2**
**ASUNTO: LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 30 DE SEPTIEMBRE DE 2024.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=101

Baiespenez onartu da.

Se aprueba por asentimiento.

**3.**
**GAIA: ZAZPIGARREN ALABA-BABESTU ARABA AUZO-ELKARTEAK 2024KO IRAILAREN 25EAN ESKATUTAKO HERRITARREN TXANDA, ETXEBIZITZA HUTSEN ERABILERA ALDI BATERAKO DESJABETZEAZ.**

**Nº 3**
**ASUNTO: TURNO POPULAR SOLICITADO POR LA ASOCIACIÓN VECINAL ZAZPIGARREN ALABA-BABESTU ARABA, EL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2024, SOBRE LA EXPROPIACIÓN TEMPORAL DEL USO DE VIVIENDA VACÍA.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=118

G.P.L jaunak eta Zazpigarren Alaba-Babestu Araba auzo elkartearen izenean hartu dute hitza.

El Sr. G.P.L interviene en nombre de la asociación vecinal Zazpigarren Alaba-Babestu Araba.

**4.**
**GAIA: BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA GASTEIZKO 37. POLIGONOKO 158. PARTZELAREN XEHETASUN-AZTERKETARI (MERCEDES BENZ).**

**Nº 4**

**ASUNTO: APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA 158 DEL POLÍGONO 37 DE VITORIA-GASTEIZ (MERCEDES-BENZ).**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=2577

## ERABAKI-PROPOSAMENA

2024ko apirilaren 8an eta 18an, Gasteizko 37. poligonoko 158. partzelaren xehetasun-azterketari buruzko dokumentazioa erregistratu zen Gasteizko Udalean.

Xehetasun-azterketa horri Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 10eko ohiko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena. Erabakiaren xedapen-zatia 2024ko maiatzaren16an argitaratu zen El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan, eta 2024ko maiatzaren 22ko ALHAOn (57. zk.).

Xehetasun-azterketaren helburu nagusia da AD-5 zuzkidura-jarduketaren eta 37. poligonoko 848 partzelaren arteko mugan lerrokaduren zati bat zuzentzea, AD-5aren eta 37. poligonoko 848 partzelaren arteko mugan atzeraeman beharrik egon ez dadin. Bi partzelak Mercedes-Benz -en titulartasunekoak dira.

Jendaurreko erakustaldian ez zen alegaziorik aurkeztu. Hala ere, 2024ko ekainaren 19an, Adif - Trenbide Azpiegituren Administratzailearen Iparraldeko Ondare eta Hirigintzaren Arloko kudeatzailearen txostena jaso zen. Bertan egiaztatzen denez, dokumentuan behar bezala jasota daude trenbidearen eragin-eremuari eta jabetzaren mugei buruzko informazioa, eta uste da dokumentua Garraioaren eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioko Trenbide Plangintzaren Zuzendaritza Nagusira igorri behar dela.

Horregatik, 2024ko ekainaren 27an, txostena eskatu zitzaion Garraioaren eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioko Trenbide Plangintzaren Zuzendariordetza Nagusiari. Bi errekerimendu egin ondoren, azkenean, 2024ko irailaren 11n, Trenbide Plangintzaren

## PROPUESTA DE ACUERDO

El 8 y 18 de abril de 2024 se registró en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz documentación relativa al Estudio de Detalle de la parcela 158 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz.

El citado Estudio de Detalle se aprobó inicialmente en sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local de 10 de mayo de 2024. La parte dispositiva del acuerdo se publicó el 16 de mayo de 2024 en El Correo (Ed. Álava) y en el Diario Noticias de Álava; y en el BOTHA nº 57, de 22 de mayo de 2024.

El objeto principal del estudio de detalle es rectificar parte de las alineaciones en el límite de la AD-5 con la parcela 848 del polígono 37, para posibilitar no retranquearse en el lindero entre la AD5 y la parcela 848 del polígono 37, de titularidad ambas dos de Mercedes-Benz.

Durante el periodo de exposición pública no se registró ninguna alegación. No obstante, el 19 de junio de 2024 se recibió informe del Gerente de Área de Patrimonio y Urbanismo Norte del Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (Adif) en el que se constataba que la información relativa a las zonas de afección del ferrocarril y las limitaciones a la propiedad se encuentra correctamente recogida en el documento y que “se considera que debe enviarse el documento a la Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes y Movilidad Sostenible”.

Por ello, el 27 de junio de 2024 se solicitó informe a la Subdirección General de Planificación Ferroviaria del Ministerio de Transportes y Movilidad Sostenible. Tras sendos requerimientos, finalmente, el 11 de septiembre de 2024 se registró en el

Zuzendariordetza Nagusiaren txostena erregistratu zen Gasteizko Udalean. Txosten horretan adierazten dutenez, eskatutako aldaketak egin direlarik, ez dago antolamendu-tresnarekin jarraitzeko eragozpenik.

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz el informe de la Subdirección General de Planificación Ferroviaria en el que se reflejaba que, llevadas a cabo las modificaciones requeridas, no existe inconveniente en la continuación del instrumento de ordenación.

Dosierraren tramitazioan, Aireportu eta Aire Nabigazioko Zuzendariordetza Nagusiaren txostena jaso zen —2024ko abuztuaren 13an erregistratua—, zeina xehetasun-azterketaren aldekoa baita zortasun aeronautikoei dagokienez, betiere proposatutako eraikuntzek, instalazioek edo landaketek edo objektu finko edo mugikorrek (zutoinak, antenak, kartelak, aerosorgailuak, palak barne, etab.) eta bide-azpiegituren galiboek zortasun aeronautikoak urratzen ez badituzte. Horretaz gain, zortasun aeronautikoei buruzko araudia egungo indarraldira egokitzea gomendatzen da txostenean.

Además, en la tramitación del expediente, se ha recibido el informe de la Dirección General de Aviación Civil, registrado el 13 de agosto de 2024, favorable en lo que a servidumbres aeronáuticas se refiere, siempre y cuando las construcciones, instalaciones o plantaciones propuestas u objetos fijos o móviles (postes, antenas, aerogeneradores incluidas sus palas, carteles, etc.), así como el gálibo de las infraestructuras viarias no vulneren las servidumbres aeronáuticas. Al margen de lo anterior, también se sugiere en el informe la adecuación de la normativa relativa a servidumbres aeronáuticas a su vigencia actual.

2024ko irailaren 3an, xehetasun-azterketaren sustatzaileak xehetasun-azterlana behin betiko onartzeko dokumentazioa erregistratu zuen Gasteizko Udalean, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren eta Trenbide Plangintzako Zuzendariordetza Nagusiaren eskakizunetara egokituta, eta baita ere eskatutako zuzenketa teknikoak jasota. Aipatutako administrazio sektorialek eskatutako zehaztapenak sartzea izan da xehetasun-azterketaren dokumentazioan egindako aldaketa bakarra, eta ezin dira jo behin betiko onespen honen xede den plangintza-tresnaren funtsezko aldaketatzat.

El 3 de septiembre de 2024 por parte del promotor del Estudio de Detalle se registró en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz documentación para la aprobación definitiva del Estudio de Detalle, adaptada tanto a las exigencias de la Dirección General de Aviación Civil como a la Subdirección General de Planificación Ferroviaria, así como a las correcciones técnicas requeridas. La incorporación de las determinaciones exigidas por las mencionadas administraciones sectoriales son los únicos cambios efectuados a la documentación integrante del Estudio de Detalle y, no son susceptibles de ser considerados modificaciones sustanciales del instrumento de planeamiento objeto de esta aprobación definitiva.

Garapen Estrategiko eta Etxebizitza Zerbitzuak 2024ko irailaren 12an eta 2024ko urriaren 4an jakinarazi du xehetasun-azterketaren behin betiko onespenaren proposamena bozkatu behar dela.

Por el Servicio de Desarrollo Estratégico y Vivienda el 12 de septiembre de 2024 y el 4 de octubre de 2024 se ha informado que cabe someter la propuesta de aprobación definitiva del Estudio de Detalle a su aprobación.

2024ko apirilaren 23ko txosten teknikoan jasotakoaren arabera, behin betiko onetsi nahi den xehetasun-azterketan aurkeztutako proposamenaren hirigintza-parametroek ez dituzte urratzen 2023ko otsailaren 7an hasieran onetsitako HAPO berriaren hirigintza-zehaztapenak (2023ko otsailaren 8ko ALHAO, 16. zk.).

Los parámetros urbanísticos de la propuesta presentada en el Estudio de Detalle objeto de aprobación definitiva no supone contravención alguna de las determinaciones del documento del nuevo PGOU aprobado inicialmente el 7 de febrero de 2023 (BOTHA nº 16 de 8 de febrero de 2023), según consta en el informe técnico de 23 de abril de 2024.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluan

La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, establece en su artículo 73 que los

xedatutakoaren arabera, xehetasun-azterketek antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatu edo egokitzea dute helburu, edozein dela lurzoru mota, eta xehetasun-azterketa horien zehaztapenak alderdi hauetara mugatu behar dira:

a) *Antolamendu xehatuak ezarritako lerrokadura eta sestrak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.*

b) *Bolumenak antolatzea, dagokion plangintzan aurreikusitakoarekin bat etorriz.*

c) *Urbanizatze-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.*

73. artikuluak ezartzen du, halaber, xedapen-azterketek ezingo dutela, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin, ezta lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi ere.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 74. artikuluan adierazten da xehetasun-azterketen edukia zein agiritan formalizatu behar den, eta onesteko prozedura berriz, lege beraren 98. artikuluan ezartzen da. 98. artikulu horretan xedatutakoaren arabera, hasierako onespena eman ondoren, xehetasun-azterketak jendaurrean jarriko dira hogei egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan. Hala egin da. Era berean, xehetasun-azterketak behin betiko onestea udalari dagokiola adierazten du.

Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak —lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen ditu— 6.2 artikuluan xedatzen duenez, xehetasun-azterketak ez dira ingurumen-ebaluazio estrategikoaren

Estudios de Detalle tienen por objeto completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en cualquier clase de suelo y que las determinaciones de tales estudios de detalle deben circunscribirse a:

a) *El señalamiento, la rectificación o la complementación de las alineaciones y rasantes establecidas por la ordenación pormenorizada.*

b) *La ordenación de los volúmenes de acuerdo con las previsiones del planeamiento correspondiente.*

c) *La regulación de determinados aspectos y características estéticas y compositivas de las obras de urbanización, construcciones, edificaciones, instalaciones y demás obras y elementos urbanos complementarios, definidos en la ordenación pormenorizada.*

El citado artículo 73 dispone que los Estudios de Detalle en ningún caso pueden infringir o desconocer las previsiones que para su formulación establezca el planeamiento correspondiente, ni podrán alterar el destino del suelo, incrementar la edificabilidad urbanística ni suprimir o reducir viales o dotaciones públicas establecidas en el planeamiento.

Los documentos en los que ha de formalizarse el contenido de los Estudios de Detalle se enumeran en el artículo 74 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo y el procedimiento para su aprobación se establece en el artículo 98 de la Ley 2/2006. Dicho artículo 98 dispone que los Estudios de Detalle, una vez aprobados inicialmente, deberán someterse a información pública durante veinte días, como así se ha hecho, para que puedan ser examinados y presentadas las alegaciones procedentes, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico y publicación en uno de los Diarios de mayor circulación del mismo. También señala que corresponde al ayuntamiento la aprobación definitiva de los Estudios de Detalle.

Tal y como establece el artículo 6.2 del Decreto 46/2020 de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, los estudios de detalle en cuanto

prozeduraren mende jarri behar, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera ez direlako planak. Gainera, prozedura hori ez da beharrezkoa, halakoak garrantzi txikikoak baitira eta ez baitute batere gaitasun berritzailerik, hirigintza-antolamenduaren ikuspegitik.

que no constituyen planes de acuerdo a la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, no se hallarán sometidos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica que resulta, además, innecesaria dada la escasa entidad y la nula capacidad innovadora de los mismos desde el punto de vista de la ordenación urbanística.

Behin betiko onespena emateko eskumena duen organoari dagokionez, Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespena ematea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 123.1.i) artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Respecto al órgano competente para la aprobación definitiva, el artículo 123.1.i) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local atribuye al Pleno la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística.

Proposatzen den xehetasun-azterketarekin bat etorriz, dosierraren parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, aipaturiko legeak kontuan harturik, eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren eta Etxebizitzaren Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

De conformidad con el estudio detalle propuesto, cuya conveniencia y oportunidad se justifican en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vista la regulación a la que se ha hecho referencia, esta Comisión de Modelo de Ciudad, Urbanismo y Vivienda, en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 122.4.a) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local eleva al Pleno de la Corporación el siguiente:

**ERABAKIA**

1.- Behin betiko onestea Gasteizko 37. poligonoko 158. partzelaren xehetasun-azterketa (Mercedes Benz), 2024ko irailaren 3an aurkeztutako dokumentazio berriarekin bat etorriz, zeina dosierrean jaso baita .

2.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Araban zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikuluan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitakoaren ildotik.

3.- Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien

**ACUERDO**

1.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela 158 del polígono 37 de Vitoria-Gasteiz (Mercedes-Benz), de conformidad con la nueva documentación presentada el 3 de septiembre de 2024 que consta en el expediente.

2.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en el diario o diarios de mayor difusión de Álava en los términos previstos en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y el artículo 7 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

3.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación, conforme al artículo 46.1 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluarekin bat etorriz.

**OSOKO BZKETA**

**VOTACIÓN DE TOTALIDAD**

GASTEIZKO 37. POLIGONOKO 158. PARTZELAREN XEHETASUN-AZTERKETARI (MERCEDES BENZ) XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA, aurkeztutako erabaki-proposamenaren ildotik.

APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA 158 DEL POLÍGONO 37 DE VITORIA-GASTEIZ (MERCEDES-BENZ), en los términos de la propuesta de acuerdo presentada.

Bertaratutakoek AHO BATEZ **ONARTU DUTE:**

**APROBADA** por UNANIMIDAD de las personas asistentes:

**ALDE (14):**

Ruiz de Larramendi Arana jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Uriarte Becerra and. (EH BILDU GASTEIZ)
Díaz de Garayo Sáez de Cerain jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Salazar Arresti and. (EH BILDU GASTEIZ)
Rodríguez Ramajo jn. (PSE-EE)
Borja Borja jn. (PSE-EE)
López de Uralde Gómez and.(PSE-EE)
Royero Jiménez jn. (EAJ-PNV)
Fernández de Landa Manzanedo jn. (EAJ-PNV)
Gurtubai Artetxe jn. (EAJ-PNV)
García Calvo jn. (PP)
Alaña Alonso and. (PP)
Ruiz Noriega and. (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)
Fernández Martín jn. (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**A FAVOR (14):**

Sr. Ruiz de Larramendi Arana (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Uriarte Becerra (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Díaz de Garayo Sáez de Cerain (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Salazar Arresti (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Rodríguez Ramajo (PSE-EE)
Sr. Borja Borja (PSE-EE)
Sra. López de Uralde Gómez (PSE-EE)
Sr. Royero Jiménez (EAJ-PNV)
Sr. Fernández de Landa Manzanedo (EAJ-PNV)
Sr. Gurtubai Artetxe (EAJ-PNV)
Sr. García Calvo (PP)
Sra. Alaña Alonso (PP)
Sra. Ruiz Noriega (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)
Sr. Fernández Martín (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

**5.**
**GAIA:** **BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA GASTEIZKO OTO HIRIBIDEKO 79.EKO PARTZELAREN XEHETASUN-AZTERKETARI (MERCEDES BENZ).**

**Nº 5**
**ASUNTO:** **APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA LOCALIZADA EN LA AVDA. DE LOS HUETOS, 79 DE VITORIA-GASTEIZ (MERCEDES-BENZ).**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=2591

**OSOKO BOZKETA**

GASTEIZKO OTO HIRIBIDEKO 79.EKO PARTZELAREN (MERCEDES BENZ) XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA, aurkeztutako erabaki-proposamenaren ildotik.

Berataratutakoek AHO BATEZ **ONARTU DUTE:**

**ALDE (14):**

Ruiz de Larramendi Arana jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Uriarte Becerra and. (EH BILDU GASTEIZ)
Díaz de Garayo Sáez de Cerain jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Salazar Arresti and. (EH BILDU GASTEIZ)
Rodríguez Ramajo jn. (PSE-EE)
Borja Borja jn. (PSE-EE)
López de Uralde Gómez and.(PSE-EE)
Royero Jiménez jn. (EAJ-PNV)
Fernández de Landa Manzanedo jn. (EAJ-PNV)
Gurtubai Artetxe jn. (EAJ-PNV)
García Calvo jn. (PP)
Alaña Alonso and. (PP)
Ruiz Noriega and. (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)
Fernández Martín jn. (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**VOTACIÓN DE TOTALIDAD**

APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA LOCALIZADA EN LA AVDA. DE LOS HUETOS, 79 DE VITORIA-GASTEIZ (MERCEDES-BENZ), en los términos de la propuesta de acuerdo presentada.

**APROBADA** por UNANIMIDAD de las personas asistentes:

**A FAVOR (14):**

Sr. Ruiz de Larramendi Arana (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Uriarte Becerra (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Díaz de Garayo Sáez de Cerain (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Salazar Arresti (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Rodríguez Ramajo (PSE-EE)
Sr. Borja Borja (PSE-EE)
Sra. López de Uralde Gómez (PSE-EE)
Sr. Royero Jiménez (EAJ-PNV)
Sr. Fernández de Landa Manzanedo (EAJ-PNV)
Sr. Gurtubai Artetxe (EAJ-PNV)
Sr. García Calvo (PP)
Sra. Alaña Alonso (PP)
Sra. Ruiz Noriega (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)
Sr. Fernández Martín (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**6.**
**GAIA: ELKARREKIN UDAL TALDEAK 2024KO URRIAREN 2AN AURKEZTUTAKO GALDERA, SALBURUKO 15. SEKTOREKO E3 ETA E4 GUNEETAN EUNEIZ UNIBERTSITATEAREN ERAIKINA EGITEKO LIZENTZIAN ATZERA EGITEAZ.**

**Nº 6**
**ASUNTO: PREGUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN, PRESENTADA EL 2 DE OCTUBRE DE 2024, SOBRE EL DESESTIMIENTO DE LA LICENCIA DE CONSTRUCCIÓN DEL EDIFICIO DE LA UNIVERSIDAD EUNEIZ EN EL ENCLAVE E3 DEL SECTOR 15 DE SALBURUA.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=2972

*Tras el desestimiento por parte del proponente de la licencia de construcción del edificio de la universidad EUNEIZ en la parcela denominada Enclave E3, del sector 15 de Salburua, nuestro grupo quiere realizar las siguientes preguntas: ¿Qué implicaciones tiene este desestimiento para el promotor tras haber empezado las obras del resto de licencias en dicho enclave? En caso de que se haya intervenido en esta parcela (671-2), ¿se le va a exigir que la parcela donde iba a estar implementada dicho edificio universitario vuelva a su estado anterior? ¿Es necesario un cambio urbanístico en el edificio en el que actualmente se desarrolla el centro universisario de Euneiz (antigua sede Kutxabank)? Con esta renuncia, ¿considera el gobierno municipal que se podía haber desarrollado todo el complejo en otra zona con menor impacto ambiental?*

**7.**
**GAIA: EH BILDU GASTEIZ UDALA TALDEAK 2024KO URRIAREN 2AN AURKEZTUTAKO GALDERA, EUSKO JAURLARITZARI GASTEIZEN EREMU TENTSIONATUAK IZENDATZEKO ESKAERAREN EGOERAZ.**

**Nº 7**
**ASUNTO: PREGUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU GASTEIZ, PRESENTADA EL 2 DE OCTUBRE DE 2024, SOBRE LA SITUACIÓN DE LA PETICIÓN AL GOBIERNO VASCO DE DECLARACIÓN DE ZONAS TENSIONADAS EN VITORIA-GASTEIZ.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=3812

*2024ko urtarrilaren 19an onartutako mozio batek Udal Gobernuari eskatzen dio 2024an, eta ahalik eta lasterren, Eusko Jaurlaritzari Gasteizen eremu tentsionatuak izendatzeko eskaera formala egitea. Era berean, eskaria gutxienez Memoria Justifikatibo batekin eta Ekintza-Plan Espezifiko batekin aurkezteko zioen mozio horrek. Hori dela eta, EH Bildutik honakoa jakin nahi dugu :*

*Eusko Jaurlaritzari Gasteizen eremu tentsionatuak izendatzeko eskaera formala egin dio Udal Gobernuak? Hala ez bada, noizko aurreikusten du Udal Gobernuak eskaera hori egitea?*

*Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko Memoria Justifikatiboa osatu du Udal Gobernuak? Hala ez bada, noizko aurreikusten du Udal Gobernuak Memoria Justifikatiboa amaitzea?*

*Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko Ekintza-Plan Espezifikoa osatu du Udal Gobernuak? Hala ez bada, noizko aurreikusten du Udal Gobernuak Ekintza-Plan Espezifikoa amaitzea?*

*Noizko aurreikusten du Udal Gobernuak Gasteiz eremu tentsionatu izendatua izatea?*

**8.**
**GAIA:** **EH BILDU GASTEIZ UDAL TALDEAK 2024KO URRIAREN 2AN AURKEZTUTAKO GALDERA, HAPO BERRIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA ATZERATZEAK IZANGO DITUEN ONDORIOEZ.**

**Nº 8**
**ASUNTO:** **PREGUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU GASTEIZ, PRESENTADA EL 2 DE OCTUBRE DE 2024, SOBRE LAS CONSECUENCIAS DEL RETRASO EN LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL NUEVO PGOU.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=5167

*Udal Gobernuak, kasurik onenean, HAPO berriaren behin-betiko onarpena 2025eko udan egitea aurreikusten du. Hori dela eta, EH Bildutik honakoa jakin nahi dugu:*

*Zein ondorio izango ditu behin-betiko onarpenaren atzeratzeak gaur egun lizentzien eteteak dituzten 25 sektoreetan?*

*Zein egoeratan geratuko dira 25 sektore horiek lizentzien eteteak amaitu eta HAPO berriaren behin-betiko onarpena egin bitartean?*

**9.**
**GAIA:** **ELKARREKIN UDAL TALDEAK 2024KO URRIAREN 4AN AURKEZTUTAKO GALDERA, GASTEIZKO UDALERRIAN EREMU TENTSIONATUAK IZENDATZEAZ.**

**Nº 9**
**ASUNTO:** **PREGUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN, PRESENTADA EL 4 DE OCTUBRE DE 2024, SOBRE LA DECLARACIÓN DE ZONAS TENSIONADAS EN EL MUNICIPIO DE VITORIA-GASTEIZ.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=3812

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

*Sobre la declaración de zonas tensionadas en el municipio de VitoriaGasteiz, nuestro grupo quiere realizar las siguientes preguntas:*

*¿Cuándo se va a remitir la solicitud formal al Gobierno Vasco de declaración de zonas tensionadas en Vitoria-Gasteiz?*

*¿En qué fase de desarrollo está la memoria justificativa y el plan de acción específico para la declaración de zonas tensionadas en Vitoria-Gasteiz?*

**10.**
**GAIA: PP UDAL TALDEAK 2024KO URRIAREN 4AN AURKEZTUTAKO GALDERA, ERREKALEORREKO UDAL-JABETZAKO ETXEBIZITZAK ERAISTEKO DOSIERRAREN TRAMITAZIOAZ.**

**Nº 10**
**ASUNTO: PREGUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL PARTIDO POPULAR, PRESENTADA EL 4 DE OCTUBRE DE 2024, SOBRE EL ESTADO DE TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE DE DERRIBO DE LAS VIVIENDAS DE PROPIEDAD MUNICIPAL DE ERREKALEOR.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=5953

*¿Cuál es el estado de tramitación del expediente de derribo de las viviendas de propiedad municipal de Errekaleor?*

**11.**
**GAIA: GALDE-ESKEAK: 3. TXANDA.- EH BILDU GASTEIZ/ ELKARREKIN / PP.**

**Nº 11**
**ASUNTO: RUEGOS Y PREGUNTAS: TURNO 3.- EH BILDU GASTEIZ / ELKARREKIN / PP.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=6767

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024101401?ts=6771

1.- Díaz de Garayo jaunak (EH BILDU GASTEIZ) Hiri Eredu, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumen Saileko zinegotzi ordezkariari galdetu dio zein egoeratan dagoen Autobabes Plana eta beste dokumentu batzuk aurkezteko Arabarren egoitzari egin zitzaion errekerimendua.

1.- El Sr. Díaz de Garayo (EH BILDU GASTEIZ) pregunta al concejal delegado del Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente sobre el estado en el que se encuentra el requerimiento que se realizó a la residencia Arabarren para presentar el Plan de Autoprotección y otros documentos.

Bukatutzat eman da bilkura, 10:59an. neuk, idazkariak, hala egiaztatzen dut.

Se levanta la sesión, siendo las 10:59 horas del día de la fecha, de todo lo que yo, la Secretaria, doy fe.